

## EUSKALDUN ZAHARRA VERSUS ERDALDUN ZAHARRA

Erdaratik euskarara itzultzeko orduan, badirudi garrantzi handikoa dela euskara ama-hizkuntza izatea; euskaratik erdarara itzultzeko orduan, berriz, badirudi berdin diola erdaldun zaharra zaren ala ez.

Askotan, muturreko jarrera horien atzean egon ohi direnak merkatxifle hutsak izan ohi dira, hau da, euskara-zerbitzu jakin bat saldu nahi diguten fariseuak, interesatuak, parte inola ere inpartziala ez dena (norbera da hoberena, norbera da duinena, norbera da “kristaurik zaharrena”).

Edo bestela, ondorioztatu behar da halakoek ez dutela elebitasunean sinesten... komeni zaienean izan ezik. Adibidez, “pijo” horietako batzuen eskura testu bat iristen denean euskaratik erdarara itzultzeko, orduan Tubalen arbaso guztiak euskaldunak zituzten profesional “peto-re-kete-petoei” badirudi ahaztu egiten zaiela ez direla erdaldun zaharrak; eta ondorioz, euren “urrezko araua” aplikatzea pasatu egiten zaie oharkabean-edo.

Nik elebitasunean sinesten dut. Horrek ez du esan nahi pentsatzen dudala elebidun guztiak euskaraz, adibidez, primeran dakitenik eta, ondorioz, denek itzultzaile jarduteko gaiturik daudenik. Baina, aizue: euskaldun zaharrekin ere berdin-berdin gertatzen da, e? Denak ez dira jaio itzultzaileak izateko.

Euskara ikasten duten gehienek ez dute lortzen, normalean, itzulpengintzan aritzeko behar adinako maila, ezta beharrik ere, zeren mundu honetara ez baikara etorri euskara ikastera soil-soilik –zorionez–. Aldiz, euskaraz maila nahiko ederra lortu dutenei oraindik ere horrelako hertsikeria erakusteak nabarmen jartzen ditu hiruzpalau gauza: fede eta borondate txarra; euskararen gaineko proiektzio eskasa; ziurtasunik eza edota ahulezia; inferioritate-konplexu negargarriak ezin gaintetik astintzea; eta gure gizarteari buruzko ezagutza interesatua.

Gorago jarri dudan adibidearen kasuan, hau da, erdaldun zaharrak izan gabe euskaratik erdarara itzultzen duten –eta euskaldun zaharrak ez direnei alderantzizko hizkuntza-jokoan aritzea onartzen ez dieten– beste horien kasuan, batek bere buruari galde egiten diona zera da: ea euskal orojakile dohatsu eta iluminatu horiek ba ote daukaten elebitasunaren gaineko monopoliorik edo.

Nik honako galdera hau egingo nizuke: erdaraz ondo dakien euskaldun zahar baten eta euskaraz ondo dakien euskaldun berri baten arteko aldeak, hain handiak ote dira? Gure garaiko euskaldun kaletar, irakurle eta intelektualei buruz ari naiz gehienbat. Badakit-eta baserri giroko eta landa-giroko zenbait biztanle-gunetan garai bateko euskara –ahozko euskara gehienbat– hobeto atxiki duten euskaldunak egon badaudela.

Erdaraz ongi dakien euskaldun zahar bati erdaraz idaztea “debekatu” beharko genioke? Eta euskaraz ongi dakien euskaldun berri bat euskaraz idaztetik “salbuetsi” beharko al genuke? Norbaitek baietz uste izango balu, nik zera esango nioke: “Hoa psikiatra batengana. Eta, bide batez, hire amatxo maiteak soporta hauela”.

Kaleko euskaldunen artean, horrekin buruhauste gutxi; baina tartean “hizkuntzaren profesionalak” sartzen direnean, Bildots Guztieta Ama Birjinarekin eta Gozilarekin egiten dugu topo.

Eta gainera, horrelako mespretxuzko jarrerak non eta elebakarrik gabeko herrialde batean loratu behar. Batzuek zer uste dute, erabat elebiduna den herrialde batean bizitzeak ondorioz ez daukala euskaldun guztien hizkuntza-senaren gainean, ala?

Frantzia: 66 milioi biztanle; frantses elebakarrak gehienak (atzo goizean iritsitakoak izan ezik); Estatu Batuak: 309 milioi biztanle, ingeles elebakarrak gehienak (bart gauean barrura ilegalki sartutako mexikarrak izan ezik); Brasil: 200 milioi biztanle, portugeselelebakarrak denak (Amazonian galdutako leinu bakan batzuk kenduta); Argentina: 41 milioi biztanle, espainieradun elebakarrak denak. Euskal Herria: 3 milioi biztanle, 800.000/1.000.000 euskaldun, euskaldun elebakarrik ez<sup>1</sup>.

Datu horiek ikusita, oraindik ere jarraitu behar al dugu euskaldun zahar “plantak” egiten? Horrelako datuak aurrean dauzkagula, euskararen bideetan zinez saiatu diren eta benetako ibilbide bat egina daukaten euskaldunei jarraitu behar al diegu galde egiten ea “euskaldun zaharrak” diren, haien esku itzulpen tekniko bat –itzulpen tekniko bat, ez James Joyceren Ulises!<sup>2</sup>– utzi ala ez zalantza eta duda mingarrietan gure burmuinak erre eta urtu aurretik?

Txillardegi biziko balitz eta itzulpengintzatik bizitzeko nahia adieraziko balu, zein izango litzateke batzuen aldetik jasoko zuen erantzuna? “Barkatu, baina zu euskaldun zaharra al zara?” Hori izango litzateke emango zitzaion erantzuna...? Txillardegi jauna politikoki gogoko ez zutenen aldetik, beharbada, horrelako erantzun bat jasoko zuen; baina, zein izango litzateke Txillardegi jauna politikoki gogoko zutenen aldetik jasoko zuen erantzuna? Arras, guztiz eta zeharo bestelakoa izango litzateke, jakina! Eta, zergatik? Alderdiko karneta zeukalako, agian?

Egia esan, alderdiko karneta edukitzeak asko laguntzen du euskal itzultzaile edo euskal kulturgile baten euskara-maila edertzen, hobetzen eta goratzen –zenbaitzuen ondare genetikoa fosforito eta guzti bihurtzen ez ote duen susmoa dut–. Izan ere, euskal gizarte hiper politizatu bat ezagutu dugunok badakigu zer esan nahi duen horrek, ezta? Eta diodana ilustratzeko, hamaika bat etsenplu jar nezake. Baina, tira, hobe da ez hastea izen-abizenak zerrendatzen, egunsentiak harrapatuko baikintuzke zerrendatxoa irakurtzen, hesteetako solitaria baino askoz luzeagoa da eta.

Horrez gain, jakin ere badakigu zeinen stalinistak izan diren euskal kulturaren tartaren zati eder bat orain arte kontrolatu dutenak. Eta jakin ere badakigu zeinen erraz baliatzen diren difamazioaz –kasurik okerreanean– edota indiferentziaz –kasurik hoberenean–, gogoko ez dituzten edota beraien planteamendu ideologikoekin bat ez datozen edota mesfidantza eragiten dieten (ni hortxe lerrotatzen naiz) kulturgileak euren bidetik kentzerakoan. Batzuek jihadistiei ere lezioak eman ahalko lizkiekete!

---

<sup>1</sup> Egia da paragrafo honetan diodana gehiago zehaztu beharko litzatekeela, aipatu ditudan herrialdeetan (Frantzia, Estatu Batuetan, e.a) multikulturalismoak erro sakonak baititu. Hala eta guztiz ere, multikulturalismo horiek ez dute inondik ere arriskuan jartzen herrialde horietan erabat hegemonikoak diren hizkuntzak (frantsesa izan, ingelesa izan edota beste edozein hizkuntza izan).

<sup>2</sup> Eta zergatik ez genieke “utzi” behar Ulyses edota beste edozein liburu itzultzen, baldin eta azkeneko emaitza modura lan duin, zuzen eta interesgarri bat aurkezten badigute? Gainera, itzulpengintzan diharduen edozeinek badaki itzulpen teknikoak terminologikoki eta sintaktikoki zeinen bihurriak eta zeinen korapilatsuak izan daitezkeen.

Ez pentsa, gero, IVAPeko lagunak atzean geratzen direnik. Kasu horretan, ordea, estalinista amorratuekin ez, jesulagunen ordenako jarraitzaile sutsuekin egin dugu topo!

Hasiko al gara IVAPen eskuetatik igarotako itzulpen guztiak miserableki arakutzen eta Mr. Hyde-ri maileguan eskatutako lupa batez begiratzen, ea lardaskeriarik topatzen dugun erakunde horrek bere 30 edo 40 urteko ibilbidean eginak dituen itzulpenetan? Baina, baina, ze espiritu miserablea da hori!

Jakingo bazenute zer-nolako euskaldun kaxkarrak ibiltzen diren batzuetan gure erakundeetan, eta horietako batzuk Euskal Herriaren salbatzaileen aldeko mugimendukoak! Aurreko legegintzaldian ezagutu nuen bat, lau urteko legegintzaldi batean euskalki berri bat baino gehiago asmatzeko aukera izan zuena. Areago, susmoa dut ez ote zen euskal erakundeetara joaten mintza praktika egitera. Behin bertoko \*\*\*etara joan nintzen, atariko letreroan zer jartzen zuen ikustera, “Gipuzkoako \*\*\*ak” ala “Gipuzkoako Euskaltea”. Baina, a, ze-nolako errespetua! ze-nolako begirunea! Zer isiltasun onbera eta heziera onekoa! Noski, euskaldunon ordezkari bat “baino” ez zenez...

Aldiz, horra euskal itzultzaile bat, euskara-kontuetan mila bueltako aldea ateratzen diena euskaldun mediokre eta kaxkar horietako askori, kostata eta sakrifizio ez-nolanahikoak eginik azkenean sen oneko euskalduna izatea lortu duena, eta... a zeinen zorrotzak denak gizagaixoarekin! 15 urteko mutiko bat izango zen, euskarazko lehen eskolak jaso zituen; eta 19 urte edo izango zituen, bere bizitzan gauza bakar bat sakon eta gogor ikastea deliberatu zuenean: euskara. Zoritxarrez, 40 urte urte gutxi omen dira, 800.000 euskaldun elebidunen hizkuntza lardaskatzeko. Zer egingo diogun ba!

Baina, normala da, noski, jakintsuz jositako herri batean bizitzeak horixe dakar-eta. Batzuek listoia oso goian jarri dute (hain “listoak” dira...). Berariaz, ez al duzue inoiz topo egin euskara puskaka eta piltzarka erortzen zitzaien euskaldun zahar batekin edo besterekin...?

Lehen, “kontrolatu” aditza aipatu dut. Bai, kontrolatzaile-aldra ederra daukagu gure konspiratzailez betetako herri honetan... Baina ez dezagun gure burua engaina: hizkuntza kontrolatu nahi duenak badaki-eta zertan ari den... politikoki, kulturalki edota sozialki. Hori ez da euskaldunon eskusiba baina: bazterketa (edota jazarpen) intelektuala munduko gobernu/kolektibo/lobby ustel guztiek (eta ez hain ustelak direnek) betidanik praktikatu izan duten arte bat da –eta batzuen kasuan, baita hobby (edota obsesio) bat ere.

Duela gutxi zera esaten zidan lagun euskaldun berri batek: “Benetan, baina nik dagoeneko ez dakit euskaldun berria ala euskaldun zaharra naizen. Duela 40 urte banekien, baina gaur egun ez, ez daukat p\*\*\*-ideiarik ere”. Benetan diotsuet: euskaldun zahar onak ezagutu ditut, baina baita baldarrak ere. Denetarik. Eta euskaldunberriei dagokienez, berdin-berdin.

Badira euskaldun berriak, 40 urte pasata ere atzo bezain berriak izaten segitzen dutenak (edo are berriagoak). Haietako batzuk ideologikoki “ongi” kokatuak, noski. Eta horiek ere makila eskuan joango zaizkizu, atzera begira noizean behin, kuadrillakoen onespene-keinu baten eske edo. Hauetako askorekin zer gertatu den igartzea ez da oso zaila: “Euskaldun txukuna izatea lortu ez dudanez, ezin beste inork lortu”. Batzuk, fabulista bikainak: “*Mahats-mordo horiek berdeegi –altuegi!– daude oraindik. Beraz, ez niretzat ez beste inorentzat*”.

Musikarako belarriduna ez denak, ordea, nekez lortuko du hizkuntzarik ikastea. Azken finean, hizkuntza bat soinu-multzo bat da. Hizkuntza bat musika sortzeko behar ditugun soinu guztien multzoa da, eta orkestra horrek behar dituen musika-tresnak gu geu gara, hiztunok. Horregatik, musikarako belarridunak izatea ala ez izatea erabakigarria da hizkuntza bat ikasteko orduan, eta batez ere, hizkuntza baten sena gure egiteko orduan.

Izan ere, sen-kontua da dena. Hizkuntza bat edozeinek ikas dezake; baina hizkuntza baten sena ez da ikasten, ezin da ikasi: bereganatu baino ezin da egin. Nola? Hizkuntza hori sakon ikasiz, bai, baina aldi berean hizkuntza horretan iraunkorki biziz, hizkuntza hori erabiltzen duen gizartearekin bat eginez, hizkuntza hori barru-barruraino barneratuz; hitz batean: euskaldun bihurtuz... Bide luze, zail, gorabeheratsu, latz eta zakar bat da. Baina bidearen amaieran, hortxe, ostadarraren muturretako batean, mundua amaitzen omen den leizean, distiratsu, urrezko lapikoaren barruan, saria eder agertzen da: ezkurtxo bat.

Eta orduan, hara iritsitakoan, zorionak gainezka egiten gaituela, Santa Teresaren mistika hasiberrientzat utzita, sariaren ikuspenak jaulkiarazi dizkigun lerdeak eta mukiak gure herrikide batzuen mingain aski luzearekin behin garbituta, gauza bat baino ezin dugula egin onartu beharrean gara: kurrinka hastea, pozez txoratuta. Eta kendu dizkiguten ezkur guztiak –ondo merezita geneuzkanak, berariaz– itzularaz diezazkiguten jarri beharreko orain arteko eta inoizko demandarik potoloena gure abokatuetako baten eskuetan utzi, noski.

Ulertuko didazuelakoan, jaso ezazue agur bero bat nire parteetatikan.

Ondo izan!